## OÑATIKO UDALA

*Iragarkia*

2002ko otsailaren 28an Udal Plenoaren erabakiz «Udal Jabari Publikoko Obrak, Zerbitzuak eta Instalazioak Arautzeko Ordenantza» onartu zen hasiera bateko izaeraz. Aipatu erabakia jendeagirian egon zen 30 eguneko epean ez da jaso iradokizunik ezta alegaziorik ere; 2002ko martxoaren 26ko dataz argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udal Iragarki Taulan.

Aurrekoa ikusirik, 2002ko maiatzaren 9an Udal Plenoaren erabakiz behin betiko izaeraz onartzea erabaki zen aipatu Araudia, era berean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN testu osoa argitara ematea erabaki zelarik.

Oñati, 2003ko martxoaren 21a.—Alkatea.

(743) (3531)

### UDAL JABARI PUBLIKOKO OBRAK, ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

*XEDEA. Ordenantza honen xedea da jabari eta erabilera publikoko udal espazio libreen eta bidesarearen zorupe, lurzoru eta hegalean gauzatzen diren obrek edo zerbitzu-instalazioek bete behar dituzten baldintza teknikoak eta koordinazio-irizpideak arautzea udal eskumenaren eremuan.*

#### 1 KAPITULOA. XEDAPEN OROKORRAK

*1.1 artikulua. Aplikazio-eremua*

1. Ordenantza honek ondorengo alderdiak arautzen ditu:

— Era guztietako hornikuntza-zerbitzu publikoetarako bide publikoan egin beharreko garraiabideetarako instalazio eta obren planifikazioa, bai eta horiek ezarri, trazatu, zaindu, kendu, aldatu edo lekualdatzeko beharrezko plangintza ere.

— Instalazio horiek ipini edo aldatzeko obren egikaritza.

— Bide publikoaren okupazioaren, instalazioen eta obren egikaritzaren ikuskapena.

— Ondare-elementuen zein Udalerriarentzat garrantzi handia duten beste batzuen eta horien instalazio osagarrien babesa eta tratamendu egokia.

2. Udal zerbitzu publikoen emakidadunek egiten dituzten obrak, instalazioak eta udal jabari publikoaren erabilpenak ondorengoek arteztuko dituzte: Toki-erakundeen zerbitzuei buruzko arauek, emakidaren baldintza-pleguek, dagokien administrazio-kontratuak eta, osagarri gisa, ordenantza hauek.

*1.2 artikulua. Udal lizentzia*

1. Zerbitzu publikoen garraiabideak edo beste edozein instalazio ipini edo aldatzeko jabari publikoa erabili ahal izateko, udal lizentzia lortu behar da aldez aurretik. Lizentzia jabari publikoaren ondorengo ataletako baten gainekoa izan daiteke:

— Bide publikoaren zorupea.

— Lurzorua, artikulu honen 2. lerroaldean aurreikusitakoari jarraituz.

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Anuncio*

Por acuerdo Plenario de fecha 28 de febrero de 2002, se aprobó con carácter inicial la «Ordenanza Reguladora de Obras, Servicios e Instalaciones en el Dominio Publico Municipal». El citado acuerdo fue expuesto por término de 30 días en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 26 de marzo de 2002 y Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, durante el citado período no ha habido ni sugerencia ni alegación alguna.

Visto lo anterior el Pleno Municipal reunido en sesión de fecha 9 de mayo de 2002, adoptó por unanimidad la aprobación del citado Reglamento con carácter definitivo y su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Oñati, a 21 de marzo de 2003.—El Alcalde.

(743) (3531)

### ORDENANZA REGULADORA DE OBRAS, SERVICIOS E INSTALACIONES EN EL DOMINIO PUBLICO MUNICIPAL

*OBJETO. Esta ordenanza tiene por objeto regular, dentro del ámbito municipal, las condiciones técnicas y criterios de coordinación a que deban sujetarse cuantas obras o instalaciones de servicios se efectúen en el subsuelo, suelo y vuelo de la red viaria y de los espacios libres municipales de dominio y uso público.*

#### CAPITULO 1. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.1. Ambito de aplicación*

1. La presente Ordenanza regula:

— La planificación de las instalaciones para conducciones en la vía pública de servicios públicos de suministros de todas clases y de las obras y condiciones necesarias para su establecimiento, trazado, conservación, supresión, sustitución, modificación o traslado.

— La ejecución de obras para el establecimiento o modificación de dichas instalaciones.

— La inspección de la ocupación de la vía pública, de las instalaciones y de la ejecución de obras.

— La protección y tratamiento adecuado de los elementos patrimoniales y de interés básico para el Municipio y de sus instalaciones complementarias.

2. La utilización del dominio público municipal, las obras e instalaciones que realicen los concesionarios de servicios públicos municipales se regirán por las normas sobre servicios de los entes locales, por los pliegos de Condiciones de la concesión y por el correspondiente contrato administrativo y, supletoriamente, por estas ordenanzas.

*Artículo 1.2. Licencia municipal*

1. La ocupación del dominio público para la instalación o modificación de conducciones de servicios públicos o de cualquier otra instalación, requerirá la licencia municipal previa para la utilización del dominio público afectado y podrá referirse:

— Al subsuelo de la vía pública.

— Al suelo, de conformidad con lo previsto en el párrafo 2 del presente artículo.

— Bide publikoaren hegala, Ordenantza hauetan aurreikusitako salbuespenetan.

2. Jabari publikoa okupatzeko baimena ondoko epeetarako emango da:

— Aldi baterako, obrak egikaritu bitartean, makinak, materialak, edukiontziak, obretako etxolak, hesiak eta seinaleak eduki eta mugitzeko xedez.

— Luzarorako, iraunkorki nahiz aldika erabiltzeko, garraiabideen osagarri diren sarbide, erregistro eta maniobra-atakak, transformazio-zentroetako aireztagailuak, airetiko kableetarako zutoinak –baimendutako balizkoetan– eta abar instalatzeko, behar bezala justifikatutako kasuetan.

3. Obrak egin ahal izateko, udal lizentzia behar izango da, instalazioaren titularrak proposatutako trazatua, bide publikoaren benetako okupazioa, obren ezaugarri teknikoak, horien forma eta egikaritza-epea onartzeko xedez. Lurzoruari buruzko Legearen 178. artikuluan, Hirigintza Diziplinari buruzko Araudiaren 1. artikuluan eta horiek osatu edo ordeztu ditzakeen edozein lege edo arautan aurreikusitakoarekin bat etorriz emango da lizentzia hori.

4. Obrak egiteko lizentziak eta jabari publikoa okupatzeko lizentziak egintza ezberdinen bitartez emango dira, nahiz eta, prozedura arindu eta azkartzeko, biak aldi berean eta espediente bakarrean izapidetu eta ebazpen beraren bitartez xedatu ahal izango diren.

*1.3 artikulua. Udal ikuskapena*

Udalak ikuskatu egingo ditu okupazioa eta baimendutako obrak, ondorengo alderdiei erreparatuz:

1. Bide publikoaren zorupe, lurzoru eta hegalaren okupazioari dagokionez:

— Okupazioari dagozkion zerbitzuak behar bezala gauzatzen diren.

— Obra eta instalazioen egoera.

2. Obrei dagokienez:

— Zehaztutako datan hasten diren.

— Burutzapen-epeak betetzen diren.

— Obren kalitatea eta gauzatzeko era.

— Narriatutako hirigintza-elementuak birjartzen diren.

3. Beraz, Udalak obren plana eta gauzatzen ari diren lanen unean uneko egoera eskatu ahal dizkie lizentziaren titular diren Konpainiei, dagokien udal ikuskapena egiteko.

4. Zerbitzu publikoen emakida duten enpresek eta zorupean kokatutako instalazioen titularrek euren pentzura egin behar dituzte zerbitzu eta instalazioak lekutu eta identifikatzeko beharrezko laginketa eta eragiketa guztiak.

*1.4 artikulua. Jabari publikoaren erabilpena*

Zerbitzuak instalatzeari begira, Jabari Publikoaren erabilpena 5 urterako (bide publikoaren babes-epea) baimenduko da; epe hori tazituki luzatuko da denbora mugagabez.

Interes publikoak hala eskatzen duenean, baimen hori aldarazi edo ezeztatu egin ahal izango da, Ordenantza honen 6. Kapituluan xedatutakoari jarraituz.

— Al vuelo de la vía pública, en los casos excepcionales previstos en estas Ordenanzas.

2. La ocupación del dominio público se autorizará:

— Con carácter transitorio, durante la ejecución de las obras, para depósito y circulación de maquinaria, materiales, contenedores, casetas de obra, vallado y señalización.

— Con carácter duradero, ya sea permanente o temporal, en casos excepcionales debidamente justificados, para instalaciones accesorias de las conducciones, como tapas de acceso, registro y maniobra, ventilaciones de centros de transformación y postes de cables aéreos en los casos autorizados, entre otros.

3. La ejecución de las obras requerirá licencia municipal, que tendrá por objeto aprobar el trazado propuesto por el titular de la instalación, la ocupación real de la vía pública, las características técnicas de las obras, su forma y plazo de ejecución. Se otorgará de conformidad con lo previsto en el artículo 178 de la Ley del Suelo y el artículo 1 del Reglamento de Disciplina Urbanística, así como cualquier legislación complementaria o normas que lo sustituyan.

4. La concesión de licencias de obras y de licencias de ocupación del dominio público serán actos distintos, independientemente que por razones de economía y celeridad en el procedimiento, puedan tramitarse simultáneamente en un solo expediente y ser objeto de una misma resolución.

*Artículo 1.3. Inspección municipal*

Tanto la ocupación como las obras autorizadas, estarán sometidas a inspección municipal, que abarcará:

1. Por lo que respecta a la ocupación del subsuelo, suelo y vuelo de la vía pública:

— El ejercicio correcto de los servicios de dicha ocupación

— El estado de conservación de las obras e instalaciones.

2. En cuanto a las obras:

— Su iniciación en la fecha señalada.

— El cumplimiento en los plazos de ejecución.

— La calidad y la forma de realización de las obras.

— La reposición de los elementos urbanísticos afectados.

3. El Ayuntamiento podrá por tanto, solicitar de las Compañías titulares de licencia, el Plan de obras y estado actual de trabajos en ejecución, con objeto de ejercer la correspondiente inspección municipal.

4. Las empresas concesionarias de los servicios públicos y las perdonas titulares de instalaciones ubicadas en el subsuelo quedan obligadas a la realización en su costa de cuantas catas y operaciones sean necesarias para la localización e identificación de los servicios e instalaciones.

*Artículo 1.4. Utilización del dominio público*

La utilización del Dominio Público para la instalación de servicios se autorizará por un plazo de 5 años (plazo de protección de la vía pública); Dicho plazo se prorrogará tácitamente por un período indefinido de tiempo.

Esta autorización podrá ser modificada o revocada por razones de interés público, de conformidad con lo previsto en el Capítulo 6 de esta Ordenanza.

## 2. KAPITULUA. JARDUKETEN PROGRAMAZIOA ETA KOORDINAZIOA

*2.1 artikulua. Urteko obra eta instalazioen programa*

1. Zerbitzu publikoen konpainiek, euren artean zein udal jarduketarekiko, jarduera behar bezala koordina dezaten, zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek Bide publikoko Urteko Obra eta Instalazioen Programa aurkeztu beharko dute, udalerria ukitzen duten Plangintza Tresna eta Planetan xedatutakoari jarraiki. Urteko Plan hori, beranduenez, abenduaren 31 baino bi hilabete lehenago aurkeztuko da urtero.

2. Udalak, Udal Zerbitzu eskudunak proposatuta eta txosten egokiak bildu ondoren, onartu egingo du Urteko Obra eta Instalazioen Programa hori, Udal Administrazioak gauzatzea edo baimentzea aurreikusita dauzkan obrak dagozkien konpainia guztiekin koordinatzeko xedez.

3. Udalaren jarduerek eragindako aldaketarik egonez gero, zerbitzu-konpainien iritzia eskatuko da hasierako Programa mantentzearen egokitasunari eta proposatzen diren aldaketak onartzeko beharrezko aurreikuspenen bideragarritasunari buruz.

4. Operadoreek proposatutako jardueren ondoriozkó aldaketak Udalei jakinarazi beharko zaizkie, horiek aldaketa horien bideragarritasunari buruzko informazioa eman eta, bidezkoa bada, Urteko Obren Programan sar ditzaten.

5. Programa hori prestatzeko, zerbitzu-konpainiek ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar diote Udal Zerbitzu eskudunari:

— Kokapena eta gutxi gorabeherako trazatua 1:2.000 eskalako Planoan.

— Obraren xedea.

— Gutxi gorabeherako hasiera-data eta gauzatzeko epea.

— Kanalizazioaren oinarrizko ezaugarriak eta sekziomotak.

— Gutxi gorabeherako aurrekontua.

Urbanizazio berrien kasuan, dokumentazio hori Udalak urte horretarako aurreikusita dauzkan hirigintza-proiektu berrien aurreikuspenerako igorri ahal izango da.

Programa prestatu bitartean, Udal Zerbitzu Teknikoek urte horretan jabari publikoan aurreikusitako obra eta instalazioen berri emango dute, egoki koordina daitezen beharrezko datuak ere emanez.

Aipatutako informazio horretan oinarrituz, Udal Zerbitzu eskudunak urteko obra eta instalazioen aurreikuspena prestatuko du.

*2.2 artikulua. Jarduketen koordinazioa eta programaren segimendua*

1. Jarduketa bat baino gehiago egiteko asmoa dagoen udalerriko aldeetan, enpresa interesatuek eta udal zerbitzuek koordinaturik jarduteko egikaritza- epeak eta beharrezko baldintzak ere jaso beharko dira obra eta instalazioei buruzko urteko aurreikuspenean; izan ere, helburua da proiektatutako instalazio guztiak jarduketa-epe bakarrean eta luzatzeko aukerarik gabe gauzatzea.

— Ematen diren obra-lizentzietan, berariaz agerraraziko dira koordinazio hori bermatzeko beharrezko baldintzak, betiere kontuan hartuta bide publikoan esku hartzeko dauden aurreikuspenak.

## CAPITULO 2. PROGRAMACION Y COORDINACION DE ACTUACIONES

*Artículo 2.1. Programa anual de obras e instalaciones*

1. Con objeto de garantizar la perfecta coordinación de la actividad de las compañías de servicios públicos entre sí y en relación con la actuación municipal, las empresas explotadoras de los servicios deberán presentar un Programa Anual de Obras e Instalaciones en la vía pública, que se ajustará a lo dispuesto en los Planes e Instrumentos de Planeamiento que afecten al municipio. Este Plan Anual será facilitado con una antelación mínima de dos meses antes del 31 de diciembre de cada año.

2. El Ayuntamiento, a propuesta del Servicio Municipal competente y recabando los informes oportunos, aprobará esta Programación Anual de Obras e Instalaciones con vistas a coordinar las obras de todas las compañías con las que tenga previsto realizar o autorizar la Administración Municipal.

3. En caso de modificaciones derivadas de actividades del Ayuntamiento, se dará audiencia a las compañías de servicios para que informen sobre la viabilidad del mantenimiento del Programa original y de las previsiones necesarias para asumir las modificaciones que se propongan.

4. En caso de modificaciones derivadas de actividades propuestas por los operadores, lo notificaran a los Ayuntamientos los cuales informaran sobre la viabilidad de dichas modificaciones y en su caso, las incluirán en el Programa Anual de Obras.

5. Para la elaboración de dicho Programa, las compañías de servicios presentarán ante el Servicio Municipal competente, la siguiente documentación:

— Localización y trazado aproximado en el Plano escala E 1:2.000.

— Objeto de la obra.

— Fecha aproximada de comienzo y plazo de ejecución.

— Características básicas de la canalización y secciones tipo.

— Presupuesto aproximado.

En caso de nuevas urbanizaciones, esta documentación se podrá remitir a la previsión de los nuevos proyectos de urbanización que el Ayuntamiento tenga planeado realizar en ese año.

Durante la elaboración del Programa, los Servicios Técnicos Municipales informarán sobre las previsiones en materia de obras e instalaciones en el dominio público durante la anualidad correspondiente, aportando los datos necesarios para su correcta coordinación.

En base a toda la anterior información, el Servicio Municipal competente elaborará una previsión anual de obras e instalaciones.

*Artículo 2.2. Coordinación de actuaciones y seguimiento del programa*

1. La previsión anual de obras e instalaciones incluirá, en las zonas del municipio en que vayan a producirse más de una actuación, los plazos de ejecución y condiciones necesarias para lograr una actividad coordinada por parte de las empresas interesadas y servicios municipales, de modo que en un único plazo de actuación y sin solución de continuidad, se ejecuten las diversas instalaciones proyectadas.

— En las licencias de obras que se expidan, se harán constar expresamente las condiciones necesarias para garantizar dicha coordinación, de acuerdo con las previsiones de intervención en la vía pública.

— Urteko aurreikuspenean eta obra-lizentzietan islatutako obrak aldarazten dituzten ezustekoak Udal Zerbitzu eskudunak baimendu eta doituko ditu, udal zerbitzuek eta Zerbitzu Publikoen Konpainiek unean-unean emandako informazioaren arabera.

2. Uneoro plangintzaren garapenaren berri izatearren, Udal Administrazioak burututa dauden, egikaritzen ari diren eta soilik proiektaturik dauden instalazioen erregistroa egingo du Udal Zerbitzu eskudunaren bitartez.

*2.3 artikulua. Bide publikoaren babes-epea*

Urbanizazio-obretan eta bide publikoa egokitu, hobetu edo mantentzeko lanetan, ondoren aipatzen diren gutxieneko babes-epeak xedatzen dira, haiek amaitzen diren egunetik zenbatuta:

— Zoladura berezia duten oinezko alderdiak, lorategiak eta espazio publikoak: Bost urte.

— Espaloi eta galtzadak: Lau urte.

Udalak eta konpainiek behar besteko zabaltasun eta proiekzioz aurreikusiko dituzte euren zerbitzuak, izan ere, babes-epean zehar ez baita urbanizatutako aldeak ukitzen dituen instalaziorik baimenduko, ez eta jadanik daudenen aldaketarik ere, honako hauen salbuespenarekin: Halabeharrez eta premiaz konpondu beharreko matxuren ondoriozkoak; lehendik eraikitako eroanbide zein galerietan zerbitzuak instalatzekoak; zoladurak ukitzen edo suntsitzen ez dituzten teknikak erabiltzen dituztenak, edo aurreikusi ezinezko hartune berriak ipintzekoak.

Hala ere, salbuespen gisa, Alkatetzak lizentzia eman ahal izango du babes-epe horiei lotu gabe, betiere eskatzaileari bide edo espaloiko zoladura eta lorategiak birjartzeko eskatuz, udal zerbitzu eskudunaren txostenak xedatzen dituen baldintzez eta zabaltasunaz.

3. KAPITULUA. ZERBITZUEN INSTALAZIOAK

*3.1 artikulua. Instalazio-motak*

Bide publikoko hornikuntza-sare orokorren instalazioa garraiabideen bidez egingo da:

— Zerbitzu-galeria bisitagarrietan.

— Zerbitzu-kutxetan edo galeria erregistragarrietan.

— Lur azpiko garraiabideetan sarturik.

— Lurperaturik.

— Airetik.

Hegaleko (airetiko) kable bidezko instalazioek salbuespen eta behin-behineko izaera izango dute, eta beren-beregi zehaztutako balizkoetan baino ez dira baimenduko.

1. Zerbitzu-galeriatzat hartuko dira hornikuntza publikoen garraiabideak kokatzeko xedea duten lurrazpiko instalazioak, baldin eta haien ezaugarri eta tamainagatik aukera ematen badute ibilbide osoan sartzeko, barruan dauden garraiabideak instalatu, zaindu, mantentze-lana burutu eta konpontzeko.

Zerbitzu-galeriak Udalak berak eraiki ahal izango ditu, edo bere baimenarekin beste batzuek. Horretarako, enpresa edo erakunde interesatuak baimen egokia eskatuko dio Udalari, eta horrek bidezko baldintzak xedatuko ditu. Kasu orotan, jabeek onartu egin beharko dute nahitaez, galerietan Udalak beharrezko deritzen zerbitzu bateragarri guztiak ezartzea hark xedatzen dituen baldintzetan. Salbuespen gisa, Udalak ez du baime-

— Los imprevistos que obliguen a modificar las obras incluidas en la previsión anual y en las licencias de obras, serán autorizados y ajustados por el Servicio Municipal competente, de acuerdo con la información facilitada por los servicios municipales y las Compañías de Servicios Públicos en cada momento.

2. Para conocer en todo momento el desarrollo de la planificación, la Administración municipal, a través del Servicio Municipal competente llevará un registro de las instalaciones terminadas, en ejecución y de las meramente proyectadas.

*Artículo 2.3. Plazo de protección de la vía pública*

En las obras de urbanización o de acondicionamiento, mejora y mantenimiento de la vía pública, se establecen los siguientes plazos mínimos de protección, contados a partir de la fecha de terminación de las mismas:

— Zonas peatonales con pavimentos especiales, jardines y espacios públicos: Cinco años.

— Aceras y calzadas: Cuatro años.

El Ayuntamiento y las compañías proyectarán sus servicios con la necesaria amplitud y proyección futuras, ya que durante el plazo de protección no se autorizarán instalaciones ni modificación de las existentes que afecten a las zonas urbanizadas, salvo las que respondan a las averías de inevitable y urgente reparación o en los casos en los que se trate de instalación de servicios en conductos o galerías construidos anteriormente, o bien con técnicas que no comporten afección o demolición de los pavimentos, así como las nuevas acometidas en las que no sea posible previsión alguna.

No obstante, en casos excepcionales, la Alcaldía podrá autorizar la concesión de licencia sin sujeción a estos plazos de protección, requiriendo al peticionario la reposición del pavimento del vial o de la acera, así como de los jardines, en las condiciones y la amplitud que establezca el informe municipal facultativo.

CAPITULO 3. INSTALACIONES DE SERVICIOS

*Artículo 3.1. Modalidades*

La instalación de las redes generales de suministro en la vía pública, se efectuarán mediante conducciones:

— En galerías de servicios visitables.

— En cajones de servicios o galerías registrables.

— Entubados en conductos subterráneos.

— Enterrados.

— Aéreos.

Las instalaciones por cable en el vuelo (aéreo) tendrán carácter excepcional y provisional y sólo se autorizarán en casos expresamente determinados.

1. Se considerarán galerías de servicios las infraestructuras subterráneas destinadas a alojar las conducciones de los suministros públicos, que por sus características y dimensiones permitan un acceso libre en la totalidad de su recorrido para hacer las operaciones de instalación, conservación, mantenimiento y reparación de las conducciones situadas en su interior.

El Ayuntamiento podrá construir por sí mismo o autorizar a terceros la construcción de galerías de servicios. Para ello, la empresa u organización interesada pedirá el permiso correspondiente al Ayuntamiento, quien podrá establecer las condiciones oportunas. En cualquier caso, el propietario quedará obligado a admitir, en las condiciones que arbitre el Ayuntamiento, la instalación en la misma de todos los servicios com-

nik emango dauden galerietan zerbitzu berriak instalatzeko, horietan zerbitzu gehiegi dagoenean edo ezarri nahi den instalazio berriak daudenetan eragiten badu.

2. Galeria bisitaezin edo erregistraezintzat edo zerbitzu-kutxatzat hartuko dira kanpotik sarbidea duten eta lauzez estalirik dauden azpiegitura edo korridoreak, euren barruan enpresa hornitzaile guztien zerbitzuak eta hodiak instalatzea ahalbidetzen dutenak.

Udalak berak eraiki ahal izango ditu zerbitzu-kutxak, edo bestela, baimena eman enpresa partikular nahiz erakunde ofizialek eraiki ditzaten. Horretarako, enpresa edo erakunde interesatuak arauzko baimena eskatuko dio Udalari, eta horrek bidezko deritzen baldintzak xedatuko ditu. Kasu orotan, jabeek onartu egin beharko dute nahitaez, horietan Udalak beharrezko deritzen zerbitzu bateragarri guztiak ezartzea hark xedatzen dituen baldintzetan.

Zerbitzu-kutxak, ahal dela, espaloien azpian eta zintarriarekiko paralelo kokatuko dira. Bakunak edo anitzak izan daitezke, eta bertan jarritako kable eta hodiak modu txukun, praktiko eta seguruan egon daitezen behar den edukiera izan behar dute, instalatutako zerbitzuen konponketa eta ordezpen-lanak egin ahal izateko.

Bai galeria erregistragarriei, bai bisitagarriei dagokienez, Zerbitzu Konpainiek emandako diseinu-betekizunak izango ditu kontuan Udalak, haien ustiakuntzaren bideragarritasuna bermatzeko xedez.

3. Hodietan sarturiko zerbitzutzat hartuko dira hornikuntza publikorako garraiabideetan zehar doazenak, hodi edo kableen linea-ezarpena egiteko zoladura edo espaloia altxatu beharrik ez dutenean, eta erregistro-kutxetak eta lotuneak beste jarraitasunik ez dutenean. Hodi bakarrekoak edo anitzekoak izan daitezke, eta hormigoi, metal, zuntz-zementu, PVC, PE, zeramika nahiz behar bezala homologaturiko bestelako materialez eginak. Halaber, aurreikusitako kargei eusteko egokiak, hermetikotasun nahikokoak eta higadurarekiko erresistenteak izan behar dute. Garraiabideen eta kutxatilen instalazioak bermatu egin beharko du, zorupea sendartzeko 0,5 $Kg/cm^2$-rainoko presioko injekzioak egitean, injektatutako materiala hodietan ez sartzea; hori gertatuz gero, Udalak ez du bere gain ezelako erantzukizunik onartuko.

Ordenantza hau onartzen den egunetik hasita, dagokion tarte edo alderdiaren arabera, zorupeko kableak halabeharrez hodietan barrena instalatzea eskatu ahal izango diete Udal Zerbitzu Teknikoek Zerbitzu Publikoen Konpainiei edo partikularrei.

Oro har, hodiak espaloien azpian jarriko dira, horien zabalerak edo dauden zerbitzuen kopuruak eragozten ez badu; kasu honetan, galtzadaren azpian jartzeko baimena eman ahal izango da.

4. Lurperaturiko kanalizazioak izango dira lehendik dauden hodiak erabili gabe zorupean zuzenean ipintzen direnak, hau da, zoladura ireki gabe ezin kendu edo konpondu daitezkeenak.

Lurperaturiko garraiabideak espaloien azpian ezarriko dira, horren zabalerak edo dauden zerbitzuen kopuruak eragozten ez badu; kasu honetan, galtzadaren azpian jartzeko baimena eman ahal izango da.

patibles que el Ayuntamiento considere necesarios. Excepcionalmente, la instalación de nuevos servicios en las galerías existentes no será autorizada por el Ayuntamiento cuando la galería se encuentre saturada de servicios y la nueva instalación suponga una alteración de los existentes.

2. Se considerará galería no visitable o registrable, o cajón de servicios, las infraestructuras o corredores cubiertos con losas y accesibles desde el exterior, que permitan la instalación en su interior de las conducciones y servicios de las diferentes empresas suministradoras.

El Ayuntamiento podrá construir por sí mismo o autorizar a empresas particulares u organismos oficiales la construcción de cajones de servicios. Para ello, la empresa u organismo interesada pedirá la autorización correspondiente al Ayuntamiento, que podrá imponer las condiciones que estime convenientes. En cualquier caso, el propietario quedará obligado a admitir, en las condiciones que arbitre el Ayuntamiento, la instalación en los mismos de todos los servicios compatibles que el Ayuntamiento considere necesarios.

Los cajones de servicios se situarán preferentemente bajo las aceras y paralelamente a la línea de bordillo. Podrán ser simples o múltiples, con capacidad suficiente para que los cables y tuberías instaladas queden de forma ordenada, funcional y segura para poder realizar los trabajos propios de reparación o sustitución de los servicios instalados.

Tanto para las galerías registrables como visitables, el Ayuntamiento tendrá en cuenta los requisitos de diseño facilitados por las Compañías de Servicios, con objeto de garantizar la viabilidad de su explotación.

3. Se considerarán servicios entubados aquellos que discurran por conductos destinados a albergar conducciones de suministros públicos, cuando el tendido de tubos o cables en su interior pueda hacerse sin levantar el pavimento o la acera sin más solución de continuidad que la relativa a las arquetas de registro y a los puntos de empalme. Podrán ser unitubulares o multitubulares, fabricados en hormigón, metálicos, fibrocemento, PVC, PE, materiales cerámicos y otros debidamente homologados, aptos para soportar las cargas previstas, con la estanqueidad adecuada y resistentes a la corrosión. La instalación de los conductos, así como las arquetas, deberá garantizar que al realizar inyecciones para consolidar el subsuelo con presión de hasta 0'5 $Kg/cm^2$, el material inyectado no pueda penetrar en los tubos, no siendo responsable el Ayuntamiento si ello sucediera.

A partir de la fecha de aprobación de la presente Ordenanza, los Servicios Técnicos Municipales podrán requerir de las Compañías de Servicios Públicos o particulares que la instalación de cables en el subsuelo haya de ser necesariamente entubada, en función del tramo o zona que se trate.

Los conductos se situarán en general bajo las aceras, salvo que la anchura de la misma o la cantidad de servicios existentes lo impida, en cuyo caso podrá autorizarse su colocación bajo calzada.

4. Serán conducciones enterradas las que se coloquen directamente en el subsuelo sin utilizar conductos preexistentes, de manera que no puedan retirarse o repararse sin abrir el pavimento.

Las conducciones enterradas se situarán preferentemente bajo las aceras, salvo que la anchura de la misma o la cantidad de servicios existentes lo impida, en cuyo caso podrá autorizarse la colocación bajo la calzada.

Bide publikoaren zorupean ezarritako instalazio guztiek Ordenantza honen Eranskinean zehaztutako xedapenak bete behar dituzte, berdin goitiko zein aurretiko bistei dagokienez, eta behar bezala frogatutako salbuespenetan baino ezin izango da hori aldatu.

5. Airetiko garraiabideak bide publikoaren hegaletik doazenak dira, euskarriei edo eraikinen fatxadei erantsirik.

Ordenantza hau onartzen denetik, erabat debekaturik egongo da udalerriko hiri-lurzoruaren eremu osoan airetiko lineak ezartzea, berdin elektrikoak, telegrafikoak, telefonikoak, kableak nahiz bestelakoak izan, betiere hirigintza-antolamenduan jaso eta behar bezala justifikatutakoak ez badira; azken balizko honetan, Udalak baimendu egin ahal izango ditu, bidezkoak diren baldintzak xedaturik.

Airetiko zerbitzuren baten trazatua aldatu behar izanez gero, Udalak linea lurpera dadin exijitu ahal izango du, aldaketa horrek ukitzen duen tarte osoan behintzat. Kostuak Ordenantza honen 6. Kapituluan xedatutakoari jarraituz egotziko dira.

Lurzoruaren gainerakoan, hori garatzen duen plangintza onartzen ez den bitartean, behin-behineko baimena eman ahal izango da horrelako instalazioak egiteko, eta konpainiek beren gain hartuko dute aldez aurreko aldaketak egin edo, unea iritsita, lurrazpiko instalazioez behin betiko ordezteko betebeharra. Edonola ere, euskarriek behar bezain sendoak eta egonkorrak izan beharko dute, eta lurrean ondo zimendatu eta ainguraturik egongo dira, uneoro euren egonkortasuna bermatzeari begira.

*3.2 artikulua. Instalazio bereziak*

Ez da Ordenantza honetan jasotakoekin bat ez datorren instalaziorik baimenduko, behar bezala justifikatutako eta Udalak baimendutako salbuespenetan izan ezik.

*3.3 artikulua. Bide publikoan zuloak eta zangak egiteko baldintza tekniko eta administratiboak*

Ondorengo baldintzak bete beharko dira zuloak eta zangak (Ordenantza honen 7.1 artikuluan definitutakoak) egiteko:

— Kutxaren hondoaren gutxieneko trinkotzea proktore arruntaren %95ekoa izango da, eta betegarriena zagor sailkatuzkoa –proktore aldatuaren %95ekoa galtzadetan eta %90ekoa espaloietan–. Akaberako unitateak lehen daudenen antzekoak izango dira kalitate, kolore, diseinu eta sestrari dagokienez, aldameneko zoladurekiko hausturarik sortu gabe.

— Obren zioz kendutako zoladura birjartzeko, lehengoaren mota bera erabiliko da berdin-berdina ez badago, antzeko kolore, itxura eta abarrekin, dauden sestrak aldatu gabe.

— Ganbera eta kutxetako erregistroak eta, zerbitzuen ustiakuntza xede, bide publikoa aldizka okupatzea eskatzen duten gainerako elementuak ahalik eta zirkulazio-arazo gutxien eragiten duten aldeetan kokatuko dira.

— Zangaren zabalera espaloi edo galtzadaren zabaleraren antzekoa bada edo egindako konponketak, Udalaren iritziz, multzoaren estetika hautsiz gero, eskatzaileak espaloi edo galtzadaren zabalera osoa berritu beharko du. Udalak ondorengo irizpideei jarraiki exijitu ahal izango du berriztapen hori:

* 4 metrotik beherako espaloi edo galtzadetan, espaloi edo galtzada osoa.

Todas las instalaciones situadas en el subsuelo de la vía pública, se situarán guardando las disposiciones que, tanto en planta como en alzado, se definen en el Anejo de la presente Ordenanza y que solo podrá alterarse en casos excepcionales debidamente justificados.

5. Serán conducciones aéreas las que discurren por el vuelo de la vía pública, apoyados en soportes o fachadas de edificios o construcciones.

Tras la aprobación de la presente ordenanza, en todo el ámbito de suelo urbano del municipio, queda terminantemente prohibida la instalación de tendidos aéreos, ya sean eléctricos, telegráficos, telefónicos, cable u otros, salvo aquéllos debidamente justificados contemplados en el planeamiento urbanístico, en cuyo caso el Ayuntamiento podrá autorizarlos, estableciendo las condiciones que procedan.

En aquellos casos en que fuera necesario modificar el trazado de algún servicio aéreo, el Ayuntamiento podrá exigir que la línea sea enterrada, al menos en todo el tramo afectado. Los costes se imputarán de acuerdo con lo establecido en el Capítulo 6 de esta Ordenanza.

En el resto de suelo, en tanto y cuanto no se apruebe el planeamiento que lo desarrolle, podrán autorizarse estas instalaciones en precario, quedando las compañías obligadas a las modificaciones previas o a su cambio definitivo por instalaciones subterráneas; en cualquier caso, los puntos de soporte deberán tener la solidez y estabilidad necesarias y estarán debidamente cimentados y anclados al terreno, de modo que su estabilidad quede garantizada en todo momento.

*Artículo 3.2. Instalaciones especiales*

No se permitirán instalaciones diferentes de las incluidas en esta Ordenanza, salvo en los casos excepcionales debidamente justificados y autorizados por el Ayuntamiento.

*Artículo 3.3. Condiciones técnicas y administrativas para la ejecución de calas y zanjas en la vía pública*

Para la ejecución de calas y zanjas (definidas en el artículo 7.1 de la presente Ordenanza), se cumplirán las siguientes condiciones:

— La compactación mínima del fondo de la caja se ejecutará al 95% del proctor normal y los rellenos con zahorras clasificadas al 95% del proctor modificado en calzadas y del 90% en aceras. Las unidades de terminación serán análogas en calidad, color, diseño y rasanteo en su nuevo establecimiento a las existentes, sin resultar ninguna discontinuidad con los pavimentos contiguos.

— El pavimento removido con motivo de las obras se repondrá de la misma clase que los anteriores, sin variar las rasantes existentes. (se asemejará en color, aspecto en caso de no haber el mismo).

— Los registros de cámaras, arquetas y demás elementos que comporten la periódica ocupación de la vía pública para la explotación de los servicios, se dispondrán en las zonas que reduzcan al mínimo las molestias para la circulación.

— Si la zanja tuviese un ancho comparable con el ancho de acera o calzada, o si la reparación efectuada rompiese la estética del conjunto, a juicio del Ayuntamiento el peticionario vendrá obligado a la renovación de todo el ancho de acera o calzada. El Ayuntamiento podrá exigir dicha renovación en base a:

* En aceras o calzadas menores de 4 metros toda la acera o calzada.

* 4 metrotik gorako espaloi edo galtzadetan, espaloi edo galtzadaren erdia.

— Eremu eta laborategi-saiakuntzak, eta obren segimendu eta kontrolerako jarduketa guztiak, udal lizentzia daukan entitatearen pentzukoak izango dira, Ordenantza honetan bildutako arau guztiak eta indarrean dauden gainerakoak manuzko zaizkiolarik.

— Zangen gutxieneko sakonera, hodiak eta garraiabideak trafikoaren, kanpoko kargen eta tenperatura-aldaketen ondorioetatik babesteko heinekoa izango da, indarrean dauden legeen arabera.

— Materialak eta obratik erauzitako gaiak biltontzi egokietan metatuko dira, trafikoa eragozten ez duten baimendutako tokietan, eta erauzitakoen kasuan, hondakindegira eramango dira berehala. Guztiz debekaturik dago materialak bide publikoan metatzea, baldin eta berariaz baimendu ez badira eta oinezko zein ibilgailuei trabarik egiten ez badiete.

— Espaloietako kanalizazioak eraikitzean, errespetatu egin behar dira jabetzetarako sarbideak eta oinezkoen igarobideak, uneoro segurtasuna bermatuz eta obrek edo materialek galtzada okupatzea saihestuz. Era berean, berrezarri egin beharko dira obren ondorioz eten diren oinezko bideak, seinaleztapen eta babes-neurri egokiak erabiliz.

— Errespetatu egin beharko dira eta berriro ezarri hondatutako zerbitzu, zortasun eta kanalizazioak. Edozein gorabehera gertatuz gero, udal zerbitzu eskudunari eta Obra Zuzendariari jakinaraziko zaie berehala.

— Obrak amaitutzat emateko, zangen betegarriaren sendotasunari begiratuko zaio, eta arbuiatu egingo dira zoladura, espaloi eta zintarrien iraunkortasun edo sendotasun nahikoa agertzen ez duten zatiak.

— Ezkutuko hutsuneen kasuan izan ezik, obrek urtebeteko bermea izango dute; epe horretan zehar, lizentziaren titularra arduratuko da obra zaindu eta mantentzeaz.

— Obrak behar bezala seinaleztatu eta babestu beharko dira, Bide Segurtasunari buruzko Legeari eta indarrean dauden gainerako lege aplikagarriei jarraituz, eta enpresa eraikitzailea eta, edozelan ere, lizentziaren titularra izango dira haien zioz gerta litekeen edozein istripuren erantzuleak. Nahiz eta obrak udal lizentziaren titularrak kontratatutako enpresek egin ahal izan, Udalaren aurrean berak hartu beharko ditu bere gain, haren titular den aldetik, dagozkion erantzukizunak.

— Obrei ekin aurretik, lizentziaren titularrak «Obra Zuzendariaren» izena jakinarazi behar dio Udal Zerbitzu eskudunari. Zuzendariak teknikari trebea eta Erdi edo Goi-mailako tituluduna izan behar du; horrez gain, eraikuntza zibilen arloan behar besteko esperientzia edo trebakuntza izan behar du, bai eta lanak ezin hobeto gauzatzeko behar den erabaki tekniko oro hartzeko eskumen eta ardura nahikoa ere, eta bere gain hartuko du udal zerbitzuen aurreko ordezkaritza, horiekin koordinatu beharko baititu obren inguruko beharrezko jarduketa guztiak. Lizentziaren titularrak beranduenez obrak hasi baino 7 egun lehenago emango dio Udal Zerbitzu eskudunari Obra Zuzendariaren izendapenaren berri, beraren tituluak eta curriculuma, helbidea eta obrek dirauten bitartean bera topatu ahal izateko telefono-zenbakia ere aurkeztuz.

* En aceras o calzadas de más de 4 metros la mitad de la acera o calzada.

— Los ensayos de campo y laboratorio, así como todas las actuaciones encaminadas al seguimiento y control de calidad de las obras, serán de cuenta de la entidad poseedora de la correspondiente licencia municipal, siéndole de aplicación la totalidad de las normas contenidas en la presente Ordenanza, así como el resto de normativa vigente.

— La profundidad mínima de las zanjas se determinará de forma que las tuberías y conductos resulten protegidos de los efectos del tráfico y cargas exteriores, así como preservados de las variaciones de temperatura del medio ambiente, de acuerdo con la normativa legal vigente.

— El acopio de materiales y los extraídos de la obra se depositarán en contenedores adecuados, situados en los espacios autorizados sin interrumpir el tráfico, y, en el caso de materiales extraídos, serán inmediatamente retirados a vertedero. Queda prohibido el acopio de materiales en la vía pública, excepto en los casos debidamente autorizados y que no ocasionen molestias a la circulación de peatones y vehículos.

— Las canalizaciones que se construyan en las aceras se realizarán manteniendo los accesos a la propiedad y el tránsito de peatones con la debida seguridad, evitando la ocupación de la calzada con las obras o con los materiales de las mismas. Se restablecerán, igualmente, los itinerarios peatonales que como consecuencia de la ejecución de las obras hayan sido interrumpidos, aplicando las medidas de señalización y protección adecuadas.

— Se respetarán y repondrán los servicios, servidumbres y canalizaciones que resulten afectadas. De toda incidencia que surja se dará cuenta inmediata al Servicio municipal competente y al Director de la Obra.

— La terminación de las obras se supeditará al resultado de la consolidación del relleno de las zanjas, rechazándose aquellas partes que no ofrezcan garantías suficientes de permanencia y solidez del pavimento, aceras y bordillos.

— El plazo de garantía, salvo vicios ocultos, se fija en un año, durante el cual el titular de la licencia responderá de la conservación y entretenimiento de la obra.

— Las obras se señalizarán y protegerán debidamente, de acuerdo con la Ley de Seguridad Vial y demás legislación aplicable vigente, siendo la empresa constructora y, en todo caso, el titular de la licencia, el responsable de cualquier accidente que pueda ocurrir con motivo de las mismas. El hecho de que las obras puedan ser ejecutadas por empresas contratadas al efecto por el titular de la licencia municipal, no exime a éste de asumir las responsabilidades que le correspondan ante el Excmo. Ayuntamiento como titular de la misma.

— El titular de la licencia, antes de la iniciación de las obras, quedará obligado a poner en conocimiento del Servicio Municipal competente el nombre del «Director de Obra», que deberá recaer en un técnico competente, titulado de Grado Medio o Superior, con experiencia y/o especializado en construcciones civiles, y con la suficiente responsabilidad para tomar toda clase de decisiones técnicas para la óptima ejecución de los trabajos, asumiendo la representatividad ante los servicios municipales, con quienes coordinará las actuaciones pertinentes en relación a las obras. El titular de la licencia notificará al Servicio Municipal competente, en un plazo no inferior a 7 días, antes de la iniciación de las obras, el nombramiento del Director de Obra, aportando la titulación y currículum del mismo, dirección y teléfono de contacto para su localización a lo largo del periodo de ejecución de los trabajos.

— Obren ondorioz zirkulazioa eteten bada edo ibilgailuen ibilia nabarmenki oztopatzen bada, behar beste seinale ipini beharko da, jabetzarako eta larrialdietako ibilgailuetarako irisgarritasuna ahalbidetuz beti.

— Lizentziaren titularra izango da obraren, lanen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteen eta, zangak behar bezala bete ezean, haiek konpontzearen erantzule, enpresa eraikitzaileak bere gain hartutako betebeharrak baztertu gabe, Udalak eraikitzailea ere errekeritu ahal izango baitu jarduketen zuzeneko erantzule gisa.

— Lizentziaren titularrak Obra Zuzendariaren bitartez emango du obren hasiera eta amaieraren berri, eta Udal Zerbitzu eskuduna arduratuko da beraien ikuskapenaz.

— Lanei ekin aurretik, Obra Zuzendariak beraien hasiera-eguna, ordua eta iraupena agertzen dituen zehaztapen-ziurtagiria eskuratu beharko du Udal Zerbitzu Teknikoarengandik.

— Obra osoan egongo da eskura Lizentziaren eta hari datxezkion baldintza teknikoen gaineko erabakiaren kopia, bai eta zehaztapen-ziurtagiriarena ere, udal funtzionarioek edo Udalak baimendutako pertsonalak eskatuz gero, erakutsi ahal izateko. Obran kopia horiek egon ezean, gerarazi egingo da berehala, eta bidezkoak diren isunak jarri ahal izango dira.

— Lizentziek sei hilabeteko balioa izango dute, beraien jakinarazpen-egunetik hasita; hala ere, gauzapenerako datak bertan aipatuta baldin badaude, horiexek zehaztuko dute indarraldia.

— Interes publikoaren edo hala exijitzen duen udal proiekturen baten zioz, aldarazi egin ahal izango dira kanalizazioaren kokalekuak eta sestra.

— Jabari publikoa okupatzeko lizentzia indarrean dagoen balizkoetan, lehengo okupazioa kokaleku berriarenaz ordeztuta ulertuko da.

— Aldaketa horrek eragindako gastuak sektoreko legeria aplikagarrian xedatutakoari jarraituz ordainduko dira eta, hori ezean edo hori osotzearren, Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera.

Oinarrizko zerbitzu publikoak harpidetzen dituztenen jabetzako hartune edo adar partikularren kasuan, behin-behineko lizentziak emango dira, horien titularren alde ezelako zortasun-eskubiderik adierazten ez dutenak. Horren gainean, Udalak interes publikokoak diren jarduketa egokiak gauzatu ahal izango ditu.

*3.4 artikulua. Ur, gas, estolderiarako hustubide, telefonia eta telekomunikazio-garraiabideetarako, kable bidezko beste garraiabide batzuetarako eta instalazio elektrikoetarako berariazko baldintzak*

Udalak eurak badira euren lurralde-eremuan lurzoruak zein eraikinak erabili eta eraikitzeko egintzak sustatzen dituztenak, ez da lizentziarik beharko, horrelakoetan Udal Administrazioko organo eskudunak onartu beharko baitu Obra Proiektua.

Horren gaineko arauketa 76 Testu Bateratuaren 180. artikuluan dago, premiazko edo interes publiko bereziko balizkoak salbu, horiek 92 Testu Bateratuaren 244. artikuluaren bidez arautuko dira eta.

Prozedura honetan, aldez aurreko lizentzia eskatu ordez, xedearen arabera eskumena duen Ministroak edo Sailburuak Udalari igorri behar dio proiektua, horrek hilabeteko epean proiektua plangintzarekin bat datorren ala ez ebatz dezan. Epe horretan ebazpenik eman ezean edo adostasuna jakinaraziz gero, Administrazioak proiektatutakoa egiteko ahalmena izango du. Desadostasun-kasuetan, Administrazioan beste prozedura bat irekiko da.

2. Behin-behineko erabilera eta obretarako lizentziak

6/98 Legearen 17. artikuluan arautzen dira, eta antolamendu zehatzik ez duen lurzoru urbanizagarrietan baino ez dago aukera hori. Hortaz, hauek dira betekizunak:

— Behin-behineko erabilerak eta obrak izan behar dute, izaerari dagokionez.

— Ezin dira ez hirigintzako edo sektoreko legeriak, ez plangintza orokorrak berariaz debekatzen dituztenetakoak izan.

— Hirigintza Administrazioak hala erabakitzen duenean, bertan behera utzi beharko dira eta inolako kalte-ordainik gabe eraitsi.

3. Antolamendutik kanpoko eraikinetarako lizentziak

Gaur egun 76 Testu Bateratuaren 60. eta 61. artikuluetan arautzen dira.

Antolamendutik kanpoko eraikinak dira Plan Orokor edo Partziala onartu aurretik eraikitakoak eta horrekin bat ez datozenak.

Horietan debekaturik dago sendartzeko, bolumena handitzeko, modernizatzeko edo desjabetze-balioa handitzeko obrak egitea, eta soilik baimen daitezke eraikinaren higieneak, apainketak eta kontserbazioak exijitzen dituztenak.

Una vez iniciado el procedimiento para el otorgamiento de licencia, nada se opone a que el solicitante desista de continuar el mismo.

*Artículo 9.4. Licencias especiales*

Determinadas actividades sujetas a intervención de la administración urbanística municipal, están al mismo tiempo sujetas a la intervención de otras administraciones públicas para velar por el cumplimiento de otros fines.

Estos supuestos especiales son:

1.—Las licencias cuyos peticionarios sean Organismos de las Administraciones Públicas o Entidades de Derecho Público que administran bienes de aquéllas.

2.—Las licencias de usos y obras provisionales.

3.—Las licencias en edificios fuera de ordenación.

4.—Las licencias en suelos clasificados como suelo no urbanizable.

1. Actos de edificación y uso del suelo y de las construcciones promovidos por las administraciones públicas

Dentro de estas licencias se encuentran los actos promovidos por todas las Administraciones Públicas, excepto los Ayuntamientos.

En los supuestos en los que son los propios ayuntamientos quienes en su ámbito territorial promueven actos de edificación y uso del suelo y de la construcciones, no habrá licencias sino aprobación del Proyecto de obras por el órgano de la Administración Municipal competente.

Su regulación se encuentra en el artículo 180 TR 76 salvo aquellos supuestos en que por razones de urgencia o excepcional interés público lo exijan que se regularán a través del artículo 244 TR 92.

El procedimiento consiste en la sustitución de la petición de previa licencia por la remisión al Ayuntamiento por el Ministro o Consejero competente por razón de la materia del proyecto, para que la Corporación en el plazo de un mes notifique la conformidad o no del proyecto con el planeamiento. Transcurrido el plazo sin resolución o notificada su conformidad quedará habilitada la Administración para la realización de lo proyectado. En el caso de disconformidad, se abrirá un nuevo procedimiento en la Administración.

2. Licencias para usos y obras provisionales

Reguladas en el artículo 17 de la Ley 6/98 sólo cabe esta posibilidad en suelo urbanizable que no disponga de ordenación pormenorizada. Por lo tanto, los requisitos exigibles son:

— Debe tratarse de usos y obras provisionales, en cuanto a su naturaleza.

— No deben estar expresamente prohibidos por la legislación urbanística o sectorial ni por el planeamiento general.

— Deben cesar en todo caso y ser demolidos sin indemnización alguna, cuando lo acordare la Administración Urbanística.

3. Licencias en construcciones fuera de ordenación

Actualmente se regula en los artículos 60 y 61 del TR 76.

Los edificios fuera de ordenación serán aquellos erigidos con anterioridad a la aprobación del Plan General o Parcial disconformes con el mismo.

Queda prohibido realizar en ellos obras de consolidación, aumento de volumen, modernización o incremento de su valor de expropiación, pudiendo tan sólo autorizarse las pequeñas reparaciones que exigieran la higiene, ornato y conservación del inmueble.

Soilik salbuespen gisa eta hamabost urteko epean finka desjabetu edo eraistea aurreikusita ez dagoenean baimen daitezke obra partzialak eta sendartzeko lanak.

4-. Lurzoru urbanizaezinerako lizentziak

Lurzoru urbanizaezina da hiri-garapenaren barruko urbanizatze eta eraikitze-prozesutik kanpo utzitakoa.

Lurzoru urbanizaezinaren jabeek, horien izaeraren arabera erabili, gozatu eta edukitzeko eskubidea dute, eta nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta zinegetika-xedeetarako eta baliabide naturalen erabilerarekin zerikusia duten beste batzuetarako erabili beharko dituzte, betiere legeek edo plangintzak ezartzen dituzten mugen barruan.

Lurralde-antolamendurako planen edo sektoreko legeriaren babespean ez badaude, interes publikoko jarduketak baimendu ahal izango dira bertan.

— 5/98 Legearekin bat beti, herrilan batzuk lurzoru urbanizaezinean ezarriko dira, baina eraikuntza eta instalazio horiek baimentzean eraikuntza edo instalazioaren eta herrilanaren arteko zuzeneko lotura funtzionala exijituko da.

Azpiegitura handietako asko lurzoru-mota horretan lekutzen dira.

Zuzeneko lotura hori dagoen balizkoetan, hirigintza-lizentzia da Hirigintza Administrazioak esku hartzeko sistema.

— Lurzoru urbanizaezinean kokatzeko erabilera publikoko edo interes sozialeko eraikuntzen kasuan, prozeduren konkurrentziazko balizko bat izango dugu aurrean: Aurretiazko baimenerako prozedura, Foru Aldundiak ebatzi behar duena, eta udal hirigintza-lizentziaren prozedura. Hauxe litzateke eskema:

— Interesatuak, promotore publiko zein pribatuak, Udalari aurkeztu behar dio eskaera.

— Eskaera Aldundiari bidaltzen zaio, beraren eta plangintzaren arteko bateragarritasuna baloratzen dituen udal txostenarekin batera.

— 20 egunez jendaurrean jartzen da informatzeko.

— Behin betiko ebazpena 2 hilabeteko epean eman behar da.

— Aurretiazko baimena lortutakoan, Udalaren aurrean izapidetu behar da ohiko hirigintza-lizentzia.

*9.5 artikulua. Lizentzien eta baimen zein emakidak eskuesteko beste administrazio-egintza batzuen konkurrentziari buruzko araubidea*

Hirigintza-lizentzia behar duten egintzak beste administrazio batzuetako organoen esku-hartzeari atxikirik egon daitezke batzuetan, hirigintzakoa ez den antolamendu juridiko bat urratzen ez dela bermatzearren.

Hirigintza-lizentziaren bidez antolamendu urbanistikoa bete egiten dela egiaztatzen delarik, beste esku-hartzeen bidez antolamendu sektorialak betetzen direla egiaztatzen da.

Lizentzia behar duen egintza bat gauzatzeko administrazio bat baino gehiagoren konkurrentzia gertatuz gero, era hauetako baten arabera jardun ahal izango da:

1.—Konkurrentzia perfektua.

2.—Konkurrentzia inperfektua.

3.—Ebazpen-egintza bakarrean.

Sólo excepcionalmente, y cuando no estuviera previsto la expropiación o demolición de la finca en el plazo de quince días años, pueden autorizarse obras parciales y circunstancias de consolidación.

4. Licencias en suelo no urbanizable

El suelo no urbanizable es aquel suelo excluido del proceso urbanizador y edificatorio del desarrollo urbano.

Los propietarios del suelo no urbanizable tendrán derecho a usar, disfrutar y disponer de su propiedad de conformidad con la naturaleza de los terrenos, debiendo destinarlos a fines agrícolas, forestales, ganaderos, cinegéticos u otros vinculados a la utilización de recursos naturales, y dentro de los límites que establezcan las leyes o el planeamiento.

Siempre que no se encuentren dentro de los suelos protegidos por los planes de ordenación territorial o la legislación sectorial, podrán autorizarse actuaciones de interés público.

— Atendiendo siempre a la Ley 5/98, determinadas obras públicas se van a emplazar en suelo no urbanizable, autorizándose estas construcciones e instalaciones siempre exigiéndose una vinculación funcional directa entre la construcción o instalación pretendida y la obra pública.

Muchas de las grandes infraestructuras se emplazan en esta clase de suelo.

En aquellos casos en los que exista esa vinculación directa el sistema de intervención de la Administración Urbanística municipal es la licencia urbanística.

— El caso de construcciones de utilidad pública o interés social en suelo no urbanizable, estaremos ante un supuesto de concurrencia de procedimientos: El procedimiento de autorización previa a resolver por la Diputación Foral y el procedimiento de licencia urbanística municipal. El esquema sería el siguiente:

— Solicitud del interesado, promotor público o privado, ante el Ayuntamiento.

— Remisión de la solicitud a Diputación acompañada de informe municipal en el que se valore la petición y su conformidad con el planeamiento.

— Información pública durante 20 días.

— Resolución definitiva en el plazo de 2 meses.

— Obtenida la autorización previa debe tramitarse la licencia urbanística ordinaria ante el Ayuntamiento.

*Artículo 9.5. Regimen de concurrencia de las licencias con otros actos administrativos autorizatorios o concesionales*

Los actos sujetos a licencia urbanística pueden, en determinadas circunstancias, estar sujetos a la intervención de órganos de otras administraciones para velar por el incumplimiento de un ordenamiento jurídico distinto al urbanístico.

Si a través de la licencia urbanística se verifica el cumplimiento de la ordenación urbanística, mediante las otras intervenciones se verificará el cumplimiento de los respectivos ordenamientos sectoriales.

La concurrencia de competencias de las distintas administraciones sobre y para la ejecución de un acto a licencia, se podrá articular de maneras distintas:

1.—Concurrencia perfecta.

2.—Concurrencia imperfecta.

3.—En un único acto resolutorio.

1. Baimen-emaileen konkurrentzia perfektua

Administrazio bakoitzaren esku-hartzeak besteenetatik independenteak direnean perfektutzat hartuko dira.

Balizko horietan, administrazio-organo bakoitzak bere eskumenen eremuan jardungo du, prozeduran zerikusia duten gainerako organoen jardueran sartu gabe.

Dagozkion baimenak, lizentziak edo emakidak lortu nahi dituen pertsonak organo bakoitzarengana joan beharko du, baimenei dagozkien prozedurak horien aurrean hasteko. Hirigintza-lizentzia lortzeko prozedurari, gainerako baimenak lortzeko prozedurei ekin baino lehen, ondoren edo aldi berean eman ahal izango dio hasiera.

Hirigintza-lizentzia lortzeko prozedura ohikoa izango da.

Hirigintza-lizentzia eskatzen duen egintza, gainera, prozedura ezberdina erabiliz eskuetsi behar den beste administrazio-baimen baten pean badago, hirigintza-lizentziaren araubide juridikoaren alderdi guztiek aldaketarik gabe segituko dute.

2. Baimen-emaileen konkurrentzia inperfektua

Esku-hartze batzuk beste batzuen menpe daudenean esango dugu konkurrentzia inperfektua dagoela. Horrelako balizkoetan, hirigintza-lizentziaren emakidak administrazioko beste organo baten baimenaren onarpena behar izaten du aurretiazko izapide gisa.

Hirigintza-lizentzia lortzeko prozedura ohikoa izango da.

3. Prozedurarako eta ebazpen-egintzarako unitatea

Administrazioaren esku-hartze guztiak ebazpen-egintza bakarrean gauzatzen dira, prozedura bakarrean izapidetu ondoren.

*9.6 artikulua. Jarduera sailkatuetarako lizentzia*

Jardueraren lizentzia lortzeko prozedura Euskal Ingurumena Babesteko 3/98 Lege orokorraren 56. artikulutik 60.era bitartekoetan arautzen da; hona hemen:

1. Jarduera publiko zein pribatuaren sustatzaileak lizentzia-eskaera luzatuko du, teknikari eskudunak sinatutako proiektu teknikoarekin eta memoria azalgarriarekin batera; horietan, jardueraren ezaugarriak, ingurumenean izan dezakeen eragina eta aurreikusita dauden neurriak azalduko dira.

2. Lizentziaren berariazko ukapena komeni denean salbu, Alkateak 15 egunez probintziako Egunkari Ofizialean jarriko du espedientea jendea informatzeko, eta berak zuzenean jakinaraziko die jarduera kokatu nahi den tokiko auzokoei.

3. Espedienteari manuzko sanitate-txosten loteslea erantsiko zaio, bai eta jardueraren izaeraren arabera beharrezko irizten zaien beste txosten guztiak ere.

4. Udalak jardueraren ezarrerari buruzko txosten arrazoitua prestatuko du.

5. Alkateak lizentzia eman aurretik, Autonomia Erkidegoko ingurumen- organoak edo foru-organo eskudunak neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena prestatuko du, bidezkoa denean.

1. Concurrencia perfecta de las potestades autorizatorias

Cuando las intervenciones de las distintas administraciones son independientes entre sí, se entenderán perfectas.

En estos supuestos, cada uno de los órganos administrativos actuará en la esfera de sus competencias, sin intervenir en la actividad de los otros órganos involucrados en el procedimiento.

La persona interesada en la obtención de las oportunas autorizaciones, licencias, permisos o concesiones deberá acudir a cada órgano, iniciando ante ellos los respectivos procedimientos, a fin de obtener las autorizaciones requeridas. Podrá instar el procedimiento para obtener la licencia de urbanismo antes, después o simultáneamente a los procedimientos para obtener las demás autorizaciones.

El procedimiento para la emisión de la licencia será el ordinario.

En el supuesto de que el acto sujeto a licencia urbanística esté sujeto además a otra autorización administrativa que debe otorgarse en procedimiento distinto, el régimen jurídico de la licencia de urbanismo en sus diversos aspectos no experimentará alteración.

2. Concurrencia imperfecta de las potestades autorizatorias

Cuando unas intervenciones dependen de las otras, nos encontramos ante una concurrencia imperfecta y son aquellos supuestos en los que la concesión de la licencia urbanística requiere, como trámite previo, el otorgamiento de la autorización a conceder por otro órgano de la administración.

El procedimiento para la concesión de la licencia urbanística será el ordinario.

3. Unidad de procedimiento y de acto resolutorio

Las distintas intervenciones administrativas se materializan, tras la tramitación de un único procedimiento, en un único acto resolutorio.

*Artículo 9.6. Licencia para el ejercicio de actividades clasificadas*

El procedimiento para la obtención de la licencia de actividad se regula en los artículos 56 a 60 de la Ley 3/98, general para la Protección del medio ambiente del País Vasco, es el siguiente:

1. El promotor de la actividad, pública o privada, formulará la solicitud de licencia, acompañándola de proyecto técnico y memoria descriptiva, firmados por técnico competente, en los que se detallará las características de la actividad, su posible repercusión medio ambiental y las posibles medidas correctoras que se propongan utilizar.

2. Salvo que proceda la denegación expresa de la licencia, el Alcalde someterá el expediente a información pública en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, por un plazo de 15 días y la notificará personalmente a los vecinos inmediatos del lugar donde haya de emplazarse.

3. Se incorporará al expediente informe sanitario de carácter preceptivo y vinculante, así como aquellos otros informes que se estimen necesarios según la naturaleza de la actividad.

4. El Ayuntamiento emitirá informe razonado sobre el establecimiento de la actividad.

5. Con carácter previo al otorgamiento de la licencia por el alcalde, el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma u órgano foral competente emitirá informe imponiendo medidas correctoras, cuando proceda.

6. Espedientearen hasieratik sei hilabete iraganda berariazko ebazpenik ematen ez bada, eta horren geraraztea interesatuari ezin egotz badakioke, jardueraren lizentzia emandakotzat hartuko da, baldin eta ingurumen-organoak kontrako txostena eman, Udalari jakinarazi eta betearazteko badago.

Obra-lizentziaren eta Jardueraren lizentziaren arteko lotura 3/98 Legean dago jasota. Horren arabera, udalek ezin dute jarduera sailkatuetarako obra-lizentziarik eman, jardueraren lizentzia eskuesten ez den bitartean, lizentzia bakarrerako prozedura berariaz aurreikusten den balizkoetan salbu telekomunikazioetan, adibidez.

Lizentziak emateko prozedura bizkortzeko xedez, zangek 1,50 metrotik beherako zabalera eta 25 metrotik beherako luzera dutenean edo 1,50 metrotik gorako zabalera izanda 15 metro koadrotik beherako azalera hartzen dutenean, zerbitzu publikoen konpainiek, sei hilerik behin, tarte horretarako aurreikuspena jasotzen duen Proiektua aurkeztu ahal izango diote Udalari, Memoria azalgarria, Plano orokor eta xehekatuak eta obren Aurrekontua edo Balorazioa erantsita. Udalak Proiektua onartzeak ez du adieraziko bertan islatutako obrak has daitezkeenik, horietako bakoitzerako, kasu bakoitzean kontuan izan beharreko baldintza teknikoak ezarriko dituzten udal zerbitzuen txostenak beharko baitira aldez aurretik.

## 10. KAPITULUA. ISUNAK

*10.1 artikulua. Arau-hausteak*

Zehatzeko arrazoia izango da Ordenantza honetan bildutako manuak urratzea.

Arau-hausteak arinak edo larriak izan daitezke. Ondokoak hartuko dira arau-hauste arintzat:

— Obra-hondakinak, materialak, etxolak eta biltontziak baimenduta ez dauden lekuetan edo baimendutakoa baino denbora luzeagoz uztea.

— Zanga eta zuloak material ezegokiz bete edo behar bezala ez trinkotzea.

— Baimenik gabe edo utzikeriagatik Udal Ondarea edo bertako edozein zerbitzu narriatzea; kalteari dagokion ordaina eskatu ahal izango da.

— Obren gauzapenean sumatutako hutsuneak zuzentzeko emandako epea gainditzea.

— Obren egikaritzarako zehaztutako epea gainditzea, dagokion luzapena eskatu gabe.

— Obrako garbitasunik eza edo materialak hesituriko esparrutik at metatzea.

— Baimenduriko pertsonalari lizentzia eta dataren zehaztapen-agiria ez aurkeztea.

— Adierazitako makinak edo ekipoak ez erabiltzea.

— Desagertu edo narriatu diren atakak berriro jartzen atzeratzea.

— Ordenantza honetan xedatutako manuak ez betetzea, betiere larritzat hartutakoak ez badira.

— Zangarako baimendutako gehieneko luzera gainditzea.

— Adierazitako txandak edo lan-ordutegiak ez betetzea.

6. Transcurrido seis meses desde la iniciación del expediente sin que se produzca resolución expresa y siempre que la paralización del mismo no sea imputable a la persona interesada, se entenderá concedida la licencia de actividad, salvo en aquellos casos en que el órgano ambiental hubiera emitido informe desfavorable y lo hubiera notificado al ayuntamiento y se hallará pendiente de ejecución.

La relación de las licencias de Obras con la licencia de Actividad viene recogida en la Ley 3/98 donde se dispone que los ayuntamientos no podrán conceder licencias de obra para actividades clasificadas en tanto no se haya concedido la licencia de actividad, salvo en los casos donde se prevé expresamente un procedimiento de licencia única, como es el caso de las telecomunicaciones.

Con objeto de agilizar el procedimiento de otorgamiento de licencias, y en aquéllos casos de zanjas cuya anchura sea inferior a 1,50 metros y su longitud no supere los 25 metros o las que siendo su anchura superior a 1,50 metros, la superficie afectada no supere los 15 metros cuadrados, las compañías de servicios públicos podrán presentar semestralmente ante el Ayuntamiento un Proyecto en el que se recoja la previsión de obras correspondiente a dicho intervalo de tiempo y en el que se incluya una Memoria justificativa, Planos generales y de detalle y el Presupuesto o Valoración de las obras. La aprobación municipal del Proyecto no supondrá la iniciación de las obras en él contenidas, que requerirá, para cada una, los correspondientes informes de los servicios municipales afectados, quienes establecerán, en cada caso, los condicionantes técnicos a tener en cuenta.

## CAPITULO 10. SANCIONES

*Artículo 10.1. Infracciones*

Será objeto de sanción el incumplimiento de las prescripciones contenidas en la presente Ordenanza.

Las infracciones se clasificarán en leves y graves. Se considerarán infracciones leves las siguientes:

— El depósito de escombros, materiales, casetas, contenedores en lugares no autorizados o por tiempo superior al permitido.

— La compactación deficiente o relleno con materiales inadecuados de las zanjas y calas.

— La afección no autorizada o negligente al Patrimonio Municipal o a cualquier servicio existente, sin perjuicio de la indemnización correspondiente.

— La demora en la corrección de los defectos observados en la realización de las obras una vez concluido el plazo para repararlos.

— El retraso en la ejecución de las obras respecto al plazo señalado, sin haber solicitado la correspondiente prórroga.

— La falta de limpieza en la obra o acopios fuera de la zona vallada.

— La no presentación de la licencia y del señalamiento a requerimiento del personal autorizado.

— No utilizar las máquinas o equipos señalados.

— El retraso en la reposición de tapas desaparecidas o deterioradas.

— El incumplimiento de las prescripciones reguladas en esta Ordenanza y que no tengan la consideración de graves.

— Superar la longitud máxima autorizada de zanja abierta.

— Infringir los turnos u horarios de trabajo señalados.

— Behin-behineko igarobideetako babes-elementuak txarto jarrita edo egoera txarrean egoteagatik zarata sortzea.

— Zoladurak edo espaloiak zehaztutako epean ez birjartzea.

Interes orokorrei eragindako kaltearen edo sortutako arriskuaren garrantzi txikia frogatu ezik, ondorengoak hartuko dira arau-hauste larritzat:

— Oinezkoentzat ondo kokatu eta babesturiko igarobiderik ez egotea.

— Obrei beharrezko egutegia lortu gabe ekitea.

— Obrak, homologatu gabeko enpresei kontratatzea.

— Bide publikoaren zorupea, lurzorua edo hegala lizentzia eduki gabe okupatzea.

— Obrak lizentziarik edo zehaztapen-agiririk gabe egitea.

— Estolderia eta horren loturak narriatzea.

— Zoladuren birjarpen arriskutsua.

— Obren egikaritzan lizentzian edota zehaztapen-agirian adierazitako baldintzak ez betetzea.

— Hesiak eta beharrezko gainerako segurtasun eta seinaleztapen-elementuak ez jartzea edo txarto ipintzea, bide publikoaren erabiltzaileentzako arriskua sortuz.

— Lizentzian zehaztutako trazatua, Bide Publikoko Obrak koordinatzen dituen Zerbitzuaren idatzizko baimenik gabe aldatzea.

— Bi hilabeteko epean hiru arau-hauste arin egitea.

*10.2 artikulua. Arau-hausteen preskripzioa*

Arau-hauste larrien preskripzio-epea lau urtekoa izango da, eta arau-hauste arinena urtebetekoa. Epe hori, urratzea egiten denetik edo, kasua bada, zehapen-prozedura hasi behar zen egunetik hasiko da kontatzen.

*10.3 artikulua. Subjektu erantzuleak*

Obrak egiten dituzten enpresak izango dira Ordenantza honetan bildutako arau-hausteen zuzeneko erantzuleak, betiere lizentzia daukanari, titularra den aldetik, egotzi ahal zaizkion erantzukizunak baztertu barik.

*10.4 artikulua. Zigorrak*

— Arau-hauste arinei 600 eurorainoko isuna ezarriko zaie.

— Arau-hauste larriak 600tik 1.800 eurorainoko isunaz zehatuko dira.

Zigorrak ezartzean, erruduntasun edo dolu-mailari, egindako urratzearen garrantziari, urratzeak dakarren arriskuari, urratzearen errepikapenari eta haren ondoriozko kalteen garrantzi ekonomikoari erreparatuko zaie.

Arau-haustean inguruabar larrigarririk sumatuz gero, zenbateko handieneko isuna ezarriko da. Inguruabar aringarriren bat aurkitzen bada, ostera, isunaren gutxieneko zenbatekoa ezarriko da.

Urratze larriengatik ezarritako isunak bi urtera preskribituko dira, eta urratze arinengatik ezarritakoak urtebetera.

— Producir ruidos por la mala disposición o estado de los elementos de protección en pasos provisionales.

— La falta de reposición de los pavimentos o aceras dentro del plazo señalado.

Salvo que se demuestre la escasa entidad del daño producido a los intereses generales o del riesgo creado, se considerarán infracciones graves las siguientes:

— No existir pasos para peatones convenientemente situados ni protegidos.

— La realización de las obras sin haber obtenido el oportuno calendario.

— Contratar obras con empresas no homologadas.

— La ocupación del subsuelo, suelo o vuelo de la vía pública sin previa licencia

— La ejecución de obras sin licencia y/o sin el señalamiento correspondiente.

— Afectar a la red de alcantarillado y a sus conexiones.

— La peligrosa reposición de pavimentos

— La ejecución de obras sin ajustarse a las condiciones de la licencia y/o señalamiento.

— La ausencia o mala colocación de vallas y otros elementos de seguridad y señalización necesarios que puedan significar peligro para los usuarios de la vía pública.

— La modificación del trazado establecido en la licencia, sin previa autorización por escrito del Servicio de Coordinación de Obras en Vía Pública.

— La comisión de tres faltas leves en un período de dos meses.

*Artículo 10.2. Prescripción de las infracciones*

El plazo de prescripción para las infracciones graves será de cuatro años y para las leves de un año, a contar desde su comisión, y comenzará a computarse desde el día en que se hubiera cometido la infracción o, en su caso, desde aquel en que hubiera debido incoarse el procedimiento sancionador.

*Artículo 10.3. Sujetos responsables*

Se consideran responsables directos de las infracciones tipificadas en esta Ordenanza, a las empresas constructoras de las obras, sin perjuicio de las responsabilidades que se deriven al poseedor de la licencia, como titular de la misma.

*Artículo 10.4. Sanciones*

— Las infracciones calificadas como leves se sancionarán con multa de hasta 600 euros.

— Las infracciones graves se sancionarán con multa de 600 a 1.800 euros.

En la aplicación de las sanciones se atenderá al grado de culpabilidad o dolo, importancia de la falta cometida, peligrosidad que implique la infracción, reincidencia o reiteración y a la entidad económica de los daños constitutivos de la infracción.

Cuando en el hecho concurra alguna circunstancia agravante, la sanción se impondrá en su cuantía máxima. Si concurriere alguna circunstancia atenuante, la sanción se impondrá en su cuantía mínima.

Las sanciones impuestas por la comisión de faltas graves prescribirán a los dos años y las impuestas por faltas leves al año.

*10.5 artikulua. Hutsune, kalte eta galeren zuzenketa*

Zigorra ezartzeak ez du alde barera uzten arau-hausleak, Udal Zerbitzuek zehazten duten epean, hutsuneak zuzentzeko duen betebeharra. Epe hori iraganda hutsuneak zuzendu ez baditu, Udalak berak gauzatuko ditu –arau-hauslearen pentzutan– egin beharreko lanak. Era berean, eragindako kalte eta galerengatiko ordaina exijitu ahal izango zaio.

*10.6 artikulua. Homologazioaren galera*

Bi hilabeteko epealdian hiru arau-hauste larri edo hamabost arin egiteak Ordenantza honetan aurreikusitakoak nahiz indarrean dagoen gainerako udal arautegian bildutakoak, homologazioa hiru hilabete eta bi urte bitarteko epealdirako ezeztatzea ekar dezake interesatuari entzun ondoren. Epe hori iraganda, homologazio berria eskatu beharko da.

Homologazioa ezeztatzeko Ebazpenaren aurka, indarrean dagoen legeriak xedatzen dituen errekurtsoak jarri ahal izango dira.

*Xedapen Iragankorra*

Interes publikoaren aldeko eta behar bezala frogatutako arrazoiengatik, lehenago baimendu ziren eta 3. Kapituluan bildutako beharkizunak betetzen ez dituzten instalazio edo zerbitzu guztiak ordenantza honetara egokitzea exijitu ahal izango du Udalak, kalte-ordainak, bidezkoak badira, baztertu barik, Ordenantza honen 7. Kapituluak xedatzen duenari jarraituz.

Hiri-lurzorua ez denean, eremu hori garatzen duen plangintza onartzen ez den artean, prekarioko aire-linea elektrikoak, telegrafikoak, telefonikoak, kable bidezkoak edo bestelakoak baimendu ahal izango dira. Balizko horretan, konpainiek euren gain hartuko dute aldez aurreko aldaketak edo, unea iritsita, lurrazpiko behin betiko instalazioen ordezkapena egiteko betebeharra. Edonola ere, euste-puntuek behar besteko trinkotasuna eta egonkortasuna izan beharko dute, euren egonkortasuna uneoro bermatzearren.

ERANSKINA

## UDAL JABARI PUBLIKOKO OBRAK, ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZARENA

Eranskin honetan Udal Jabari Publikoko zorupean eta lurzoruan zerbitzu publikoetarako azpiegituren eta oinarrizko beste elementu urbanistikoen proiektu eta instalazio koordinaturako aplikagarri den arautegia garatzen da, lurperaturiko edo hodiztaturiko zerbitzuei dagokienez. Galeria erregistragarri edo bisitagarrietan jartzen direnean, Ordenantza honetan eta indarrean dagoen gainerako arautegian xedatutakoa izango da manuzko.

Eranskin honen eskemek arteztuko dute lurzoru urbanizagarrian lekutzeko urbanizazio-proiektuen garapena eta, era berean, erreferentziazkoak izango dira hiri-lurzoruaren eremukoetan ere, ahal den guztietan arau honetara egokituko baitira.

Espaloietako kanalizazioen plantako ezarrera, ondoko banaketaren arabera egingo da orokorrean:

— Fatxadatik edo partzelaren ertzetik zintarrirantz, ondorengo ordenan jarriko dira zerbitzu publikoak: Behe-tentsioa, Edateko Ura, Gasa, Telefonia eta Kablea, Erdi-tentsioa. Zerbitzu bakoitzari esleitutako tokiak Eranskin honetako planoetan daude definiturik. Kanalizazio horietako baten bat egon ezean, ez da aipatutako ordena edo segida aldatuko, eta hurrengo zerbitzuak okupatukò du hutsartea.

*Artículo 10.5. Reparación de deficiencias, daños y perjuicios*

Las sanciones que se impongan se entenderán sin perjuicio de la obligación del infractor de reparar las deficiencias observadas en el plazo que establezcan los Servicios Municipales. Transcurrido dicho plazo sin que haya procedido a la subsanación de las deficiencias, el Ayuntamiento efectuará, a cargo del infractor, los trabajos necesarios. Asimismo, será exigible la correspondiente indemnización por los daños y perjuicios causados.

*Artículo 10.6. Perdida de la homologación*

La realización de tres infracciones graves o quince leves en un periodo de dos meses, tanto de las previstas en esta Ordenanza como de las incluidas en el resto de normativa municipal vigente, podrá dar lugar, previa audiencia al interesado, a la revocación de la homologación por un plazo no inferior a tres meses ni superior a dos años, transcurrido el cual deberá solicitarse nueva homologación.

Contra la Resolución revocatoria podrán interponerse los recursos procedentes, de conformidad con la legislación aplicable.

*Disposición Transitoria*

El Ayuntamiento, por motivos de interés público debidamente justificados, podrá exigir la adecuación a esta ordenanza de todas aquellas instalaciones o todos aquellos servicios autorizados con anterioridad, que no cumplan las exigencias contenidas en el Capítulo 3, con independencia del pago de las indemnizaciones, si procediese, de conformidad con lo que dispone el Capítulo 7 de esta Ordenanza.

En el suelo que no sea urbano, en tanto y cuanto no se apruebe el planeamiento que lo desarrolle, podrán autorizarse instalaciones de tendidos aéreos en precario, ya sean eléctricos, telegráficos, telefónicos cable u otros, quedando las compañías obligadas a las modificaciones previas o a su cambio definitivo por instalaciones subterráneas; en cualquier caso, los puntos de soporte deberán tener la solidez y estabilidad necesarias y estarán debidamente cimentados y anclados al terreno, de modo que su estabilidad quede garantizada en todo momento.

ANEJO

## DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE OBRAS, SERVICIOS E INSTALACIONES EN EL DOMINIO PUBLICO MUNICIPAL

En el presente Anejo se desarrolla la normalización aplicable para el Proyecto e instalación coordinada de las infraestructuras de los servicios públicos y otros elementos urbanísticos básicos en el subsuelo y suelo del Dominio Público Municipal, cuando se trate de servicios enterrados o entubados. En el caso de instalarse en galerías registrables o visitables, será de aplicación lo previsto en la presente Ordenanza y demás normativa vigente.

Los esquemas del presente Anejo regirán para el desarrollo de proyectos de urbanización en suelo urbanizable y servirán de referencia, asimismo, en el ámbito de suelo urbano, que se adecuarán a esta norma siempre que ello sea posible.

La disposición en planta de las canalizaciones en acera, seguirá, con carácter general la siguiente distribución:

— En el sentido desde la fachada o límite de parcela hacia el bordillo, se dispondrán los diferentes servicios públicos en el orden siguiente: Baja Tensión, Agua Potable, Gas, Telefonía y Cable, Media Tensión. Los espacios asignados a cada servicio vienen definidos en los planos del presente Anexo. La ausencia de cualquiera de estas canalizaciones no alterará la cadencia o el orden establecido, ocupando el hueco el servicio contiguo.

— Zintarritik fatxada edo partzelaren ertzerantz, kainozulo, argiztapenerako zimendu edo txorkoen lerrokadura gainditutakoan, ondoko ordenan jarriko dira udal zerbitzuak: Ureztatzeko Sarea, Argiztapena, Trafikoa eta Udal Komunikazioak. Zerbitzu bakoitzari esleitutako tokia Eranskin honetako planoetan definitzen dira. Kanalizazio horietako baten bat egon ezean, ez da aipatutako ordena edo segida aldatuko, eta hurrengo zerbitzuak okupatuko du hutsartea.

Zerbitzu publikoak eta oinarrizko beste elementu urbanistiko batzuk ezartzean Eranskin honetan xedatutakoarekiko gertatzen den edozein aldaketa, berariaz justifikatu beharko da proiektuan. Aldaketaren beharra obren zuinketaren unean edo proiektuan aurreikusi ez diren arrazoiengatik lanak egin bitartean azaltzen bada, Obra Zuzendariak Obrak Koordinatzeko Udal Zerbitzuari jakinaraziko dio, horrek aztertu eta kasu bakoitzean bidezkoak diren irtenbideak erabaki ditzan.

Urbanizazio Proiektuetan zerbitzu publiko, kanalizazio eta bestelako elementu urbanistiko guztiak islatu behar dira honi erantsiriko eskemei jarraituz edo berariazko justifikazioarekin, hala egin ezean, baita haien egikaritza-ordena ere. Obra zibilaren edo instalazioen egikaritzan edo ustiakuntzan enpresa-agente batek baino gehiagok esku hartzen duenean, haiei entzun ondoren, Obrari buruzko Plan erkidea sartu beharko da Urbanizazio Proiektuan, Udalak onartu beharko duena eta alderdi guztiek errespetatu beharko dutena.

Hirigintza eta Eraikuntza Lizentzien emakidan eta gainerako udal jarduketa guztietan, aintzat hartuko da zerbitzu publikoen beharrezko ezarpen koordinatua, eskatzaileari bere jardun guztiak obrak koordinatzeko eskumena duen Udal Zerbitzuarekin programatzeko betebeharra dakarkiona.

Erantsiriko eskemetan, zerbitzu publikoak eta beste elementu urbanistiko batzuk urbanizazio-obretan ezartzean manuzkoa den araudia xedatzen da, espaloi, galtzada eta lorategi edo espazio publiko irekien zabaleraren arabera.

Tamaina handiko sareetako elementu osagarriak, hala nola ponpaketa edo erregulazio-tokiak, telefonia-ganberak e.a., alaka edo gurutzaguneetako espaloietan jarriko dira ahal dela, eta bestela berariaz justifikatu beharko da.

Eskema horiek Urbanizazio Proiektu eta Obrei aplikatzean, oinarrizko irizpide honi jarraituko zaio:

— Urbanizatu beharreko espaloiaren zabalera eskemetako batean ere sartzen ez bada, hurrengo espaloi-zabalera txikiagoari dagokion eskemako segidan eta tokietan jarriko dira zerbitzuak.

— Bide publikoetan edozelako asimetria dagoenean espaloiak zabalera ezberdinak dituelako, edo erdian zerbitzu-bideak edo bulebarrak daudelako, edo Garraio Azpiegiturarako zein bestelako Obrak egiteko Udal Proiektuak daudelako, zerbitzu publikoen eta oinarrizko beste elementu urbanistikoen Instalazio-proiektua Eranskin honetako eskema antzekoenari lotuko zaio ahalik eta gehien.

Galtzada, lorategi edo espazio publiko irekietako gurutzaguneetan eta Udalak bide nagusien sarekotzat hartzen dituen kale guztietan, erreserba-hodiak instalatzea exijituko da.

— En el sentido desde el bordillo a fachada o límite de parcela, una vez rebasada la alineación de imbornales, cimentación de alumbrado o alcorques, se dispondrán los diferentes servicios municipales en el orden siguiente: Red de riego, Alumbrado, Tráfico y Comunicaciones Municipales. Los espacios asignados a cada servicio se definen en los planos del presente Anexo. La ausencia de cualquiera de estas canalizaciones, no alterará la cadencia o el orden establecido, ocupando el hueco el servicio contiguo.

Cualquier variación en la implantación de los servicios públicos y otros elementos urbanísticos básicos sobre lo establecido en el presente Anexo, deberá justificarse expresamente en el proyecto. Cuando la variación se estime en el momento del replanteo de las obras o durante la ejecución de los trabajos, por causas no previstas en el proyecto, el Director de Obra,lo pondrá en conocimiento del Servicio municipal de Coordinación de Obras, quien estudiará y definirá las soluciones que en su caso procedan.

Los Proyectos de Urbanización deberán incluir el establecimiento de todos los servicios públicos, canalizaciones y otros elementos urbanísticos básicos, de acuerdo con los esquemas adjuntos, salvo justificación expresa en caso contrario, así como el orden de ejecución de los mismos. Cuando concurran distintos agentes empresariales en la ejecución o la explotación de la obra civil o de las instalaciones, el Proyecto de Urbanización incluirá, previa audiencia de los mismos, un Plan de Obra común que aprobará el Ayuntamiento y obligará a todas las partes.

En el otorgamiento de Licencias Urbanísticas y de Edificación, así como en el resto de las actuaciones municipales, se tendrá en cuenta la necesaria implantación coordinada de los servicios públicos, condicionando al solicitante a programar las actuaciones con el Servicio Municipal competente en la coordinación de obras.

En los esquemas adjuntos se establece la normalización aplicable a la implantación de los servicios públicos y otros elementos urbanísticos en las obras de urbanización, en función el ancho de la acera, calzada y jardines o espacios públicos abiertos.

Los elementos complementarios de las redes de gran dimensión, como estaciones de bombeo o regulación, cámaras de telefonía u otros, se ubicarán, siempre que sea posible, en las aceras de los chaflanes o cruces, salvo justificación expresa en caso contrario.

Para la aplicación de estos esquemas a los Proyectos y Obras de Urbanización se seguirá el siguiente criterio básico:

— Si el ancho de la acera a urbanizar no coincide con ninguno de los esquemas, se procederá a la implantación de los servicios con la cadencia y espacios del esquema correspondiente al ancho de la acera inmediatamente inferior.

— Cuando exista cualquier asimetría en las vías públicas, bien sea en las aceras por causa de diferentes anchos, como por la presencia de vías de servicio o de bulevares centrales o por Proyectos Municipales de Obras de Infraestructura del Transporte u otros, el Proyecto de instalación de los servicios públicos y otros elementos urbanísticos básicos se aproximará en todo lo posible a los esquemas del presente Anexo más similares al caso de que se trate.

En los cruzamientos de calzadas, jardines o espacios públicos abiertos y en todas aquellas calles que el Ayuntamiento considere en razón de su categoría dentro de la red arterial, se exigirá la instalación de conductos de reserva.




KOTAK METROTAN – COTAS EN METROS

| | LEGENDA | LEYENDA |
|---|---|---|
| BT | behe tentsioa | baja tensión |
| TE | tentsio ertaina | media tensión |
| EUBS | edateko ura banatzeko sarea (ø ≤ 150mm.) | red de distribución de agua potable (ø ≤ 150 mm.) |
| GBS | gasa banatzeko sarea (ø ≤ .....) | red de distribución de gas (ø ≤ 150 mm.) |
| TBS | telefoniaren dispertsio eta banaketa sarea | red de distribución y dispersión de telefonía |
| HA | herriko argiteria | alumbrado público |
| UK | udal komunikazioak | comunicaciones municipales |
| TKS | trafikoa kontrolatzeko semaforoak eta komunikazioak | semáforos y comunicaciones de control de tráfico |
| E | estolderia | alcantarillado |
| US | ureztatzeko sarea | red de riego |
| KBK | kable bidezko komunikazioak | comunicaciones por cable |
| M | malda | pendiente |
| BPUS | behe presioko uraren sarea | red de agua, baja presión |
| UE | udal erreserba | reserva municipal |

1–1.dwg

OÑATIKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE OÑATI

UDAL JABARI PUBLIKOKO OBRAK, ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN ERANSKINA

ANEJO A LA ORDENANZA REGULADORA DE OBRAS, SERVICIOS E INSTALACIONES EN EL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL

1.1

ESKALA 1/40

2.002ko Martxoa

KANALIZAZIOEN EZARPENAREN ESKEMA

ESQUEMA DE IMPLANTACIÓN DE LAS CANALIZACIONES

2.00 METROKO ESPALOIA

ACERA DE 2.00 METROS




KOTAK METROTAN - COTAS EN METROS

| | LEGENDA | LEYENDA |
|---|---|---|
| BT | behe tentsioa | baja tensión |
| TE | tentsio ertaina | media tensión |
| EUBS | edateko ura banatzeko sarea (ø ≤ 150mm.) | red de distribución de agua potable (ø ≤ 150 mm.) |
| GBS | gasa banatzeko sarea (ø ≤ .....) | red de distribución de gas (ø ≤ 150 mm.) |
| TBS | telefoniaren dispertsio eta banaketa sarea | red de distribución y dispersión de telefonía |
